

Lege zarraren alde zer bait ospetsu egin zuten euskaldunak

LATEGI'TAR BIXENTE.

Joan den asteko idazlanean Fue-roa, ots, LEEGEZARRA, gaurregun Euskalerrian pakearen alde lan egiten asteko bide berri bat bezala eskeintzen nuen.

Gizarteko bizitzaren arloan Euskalerrria ta Lege Zarra gauza bat bera bait dire. Inork ez daki ba, noiztidanikoa den! Esan daitteke ba, Euskalerrria ERRI bezala Legezarraren altzoan sortu eta eratu zela. Edo berdin dena, Euskalerrria erri bezala moldatzen ari zen asti berean ari izen zela bere Legezarra sortzen.

Orregatik bere bizia berbera aiaña maite izen dute euskaldunek Legezarra.

Bi edo iru astez, Legezarraren alde gauzarik garrantzitsuenak egin dituzten euskaldunak azaldu nai nituzke. Bedi napar bat aurrenekoa: Ibargoiti'ko Idozin izeneko errixoan jaiotako Frantzisko Espoz y Mina izen aundiko basa-gudalaria.

Nekazari au, Napoleon Bonaparte'ren gudariak Euskalerrriaren jabe egin zirenean, beste askok bezala, frantziarren aurka basagudura jo zuen.

Asko izean ziren ori egin zutenak. Denetan ospetsuena, illoba zuen Mina Larrea'z gañera, gure Espoz y Mina au, «Hispanic history's first gerrilla fighter» «Españi'ko edestian basagudulari nagusia» (W. Lewis «Mankind», London 1971; 12).

Ez zen fiatzeko gizona; batez ere napoleondarren aurkako gu-

dua amaituz gero, zer egin eta nora jo ez zekila ibilli zenean: «garaitza usaia dakarten aizeek nondik jo, nik alde artara joko nere probetxuaren billa».

Egin zun alare zer bait esker-garri. Kadiz'ko konstituzioa, Espāñi'ren lenen konstituzioa, afusillatu.

IV Karlos errege tentela Napoleonek Baiona'n kastigu zeukala, Espāñi gobernatzeko «Junta Central» izeneko Batzorde bat sortu zen Kadiz'en, au bakarrik gelditu bait zen frantzesez yare.

Batzar Nagusi orrek konstituzio bat eman zun argitara. Espāñi'ren aurrenekoa. Konstituzio ortan goratarre ederra egiten zitzaion Euskalerrriko Legezarrari baiñan gure Legezarraren bizitza Konstituzio arren menpean ipiñiz. Bizi omen zitekean bizkor Euskalerrriko Legezarra, baiña Espāñi'ren konstituzio arren Batasuna, ots, «la unidad constitucional», arriskuan jartzeke!

Baiña, naiz batere ikasketarik gabeko nekazaria izean, euskalduna zen ordea gure Espoz y Mina basagudulari ospetsu ura, eta bazakian Euskalerrrian Lege Nagusia —¡Lege Nagusi bakarra!— Lege zarra zela; eta lege zar ori, atzerriko lege baten menpean jartzea —naiz lege ori Frantzi'koa, Espāñi'koa edo Txina'koa izen—, gure lege zarra erabat illik uztea zela. Eta, orduan, euskaldun batek egin zezakean gauza bakarra egin zuen: Konstituzio maltzur ura afusillatu.

BERRI ONA ARTZALLUZ'TAR JOXEMARI

Bizia eman, bai; kendu ez, ordea

«Betiko bizia ematen diet» (Jn. 10,27-30)

PAZKOAK fededunaren biotzean sortu duen poza indartuz eta gozatuz bizi gera oraindik. Eta poz ori aunditu eta edertu egin da gaurkoan: nere ardien alde «betiko bizia ematen dut», erran eta agindu baitugu Jesus Berpiztuak.

Bizia eman, au da, borondatez eskaini, ez du edernok egiten. Anitz dira bizia emateko «prest» daudela aitortzen dutenak baiña, ordua etortzen denean ies edo izkutatu egiten dira denak.

Bizia emateko borondatea ezezik barruko indarra, fedeak bakarrik eman dezaken indarra bear da. Bertzela, zer zentzu artzen diozu bizia emateari? Merezi al du bertzerik gabe bizia emateak?

Eta bizitza emateko unean bakoitzak erabaki bear du, bakoitzak sinismen aitortza egin bear du, bakoitzaren eta ez bertze iñoren erabakia izan bear da. Fedea nik neuk baieztatuko dut eta ez bertze iñork nire orde.

Ugari dira bizia emateko prest direla erran arren, gero anka egiten dutenak. Pena eta errukia ematen didate orrelako «balianteek» eta orrelako ausartek. Jesus'ek aurre egin zien bizia kentzera joan zitzaizkieni; kendu ez, «eman egingo dut» erran zien beldur gabe.

Norbakoitzaren aukera ez denean, bertzeek derrigorrez beartzen dutean... bizia emateak -eta pertsonaren eskaintzarik ikaragarriena eta bikaiñena izanik ere- ez du ezer balio. Fedea balio duela eta fededun izateak merezi duela aitortzen ez denean, ezer gutxi balio du bizia emateak.

Gure gizarteko materialismoak eta geurekoikeriak erabat txundituta dauzka mundua eta mundutarrak. Nora joango gera fedearen indarra galdu badugu?

Mundua txarra denik ezin aitortu dezakegu Jainkoak «dena ondo egin zuen» erraten baitzaigu biblian. Munduarekiko gure jarrera da aztertu bear duguna. Mundu ori da Jainkoarengana bihurtu bear duguna, munduko gauzak dira jainkotu bear ditugunak, ori da gure lana eta fedearrekiko dugun konpromisoa.

Eta egiaz eta benetan bizia eman nai badugu, noski, entzuten jakin bearko dugu. Jainko Aitari entzuten ikasi bearko dugu; entzutea guztiz garrantzitsua da fedea bizitzeko. Egin fedez blai eta goza Jainkoak ematen dizun biziaz. Orrela bakarrik biziko duzu Pazkoa eta orrela bakarrik izango zera bizia emateko eta eskaintzeko kapaz.

Altzako Marrus bertsolaria

JOXE IÑAXIO SALABERRIA.

Ebia franko egin du Euskalerrrian Antonio Zavala Auspoako zuzendariak «Altzako bertsolari zaarrak» (1968) liburu txiki baiña mamitsua argitaratu zuneetik, gure bertsolaritzaren istoriaren giltza dan aditu onek itzaurrean dionez Altza erria eta inguruak betidanik bertsolari lur emankorrak izan dira.

Garai artako Altza aldeak eta gaurkoak antzik eztaukate bate. Orduko Altza erria oso txikia zan eta inguratzen zioten baserriak indarra eta izena ematen zioten udalerriari; baserri oietan etekiñik ederrena sagardo sagarrarekin ateratzen zuten eta sagardotegiak nonnai azaltzen ziran.

Kutsatu gabeko Altza ortan jaio zan Andres Arrieta Alkiza bertsolaria 1856.urteko Azaroaren 10ean oraindik txutik dagon Marrus baserri dotorean, jaiotetxeari zorko zion beti bere izengoitia eta erriak beti berari zuzentzean Andres «Marrus» esango zioten. Giza-seme aundia eta bikaña izan zan eta jateko garaian «tripazai» xamarra zan, betekada galantak egiten zituna. Altzako Garbera-goi baserrira esosatu zan ango alabarekin M. Estefania Jauregi eta famili ederra azi zuten. Izen bereko baserrian il zan 1930-III-27 egunean. Bere kantu lagun batek, Patxiko Arzak «Amueder» bertsolariak, ederki asko irudikatzen zigun erretrato modura «Marrus» bertsolaria:

Alza'ko erriyan asko nai diyo
Garbera-goi'ko Andresi,
ogiya baño gizon obia,
gaitzik eztuna merezi;
aspalditxuan kantu-lanian
eztezu gutxi ikasi,
tamaña orretan laister zera-

de bertsolariyen nagusi.

Bertso giroari txikitatik oso atxikitua bizi zan eta aurtzaroan aurreneko aldiz Errenterriko «Xenpelar» bertsotan ikusi zun Mirazune zeritzaion sagardotegi batean (Altzan). Bere bertso adiskideak batez ere abek izan ziran: Joxe Garmendia «Arrues», Patxiko Arzak «Amueder», Xaturdino Erasquin «Gaxtelu», Txurdiñeneko «Artzai Txikiya» eta aaztu gabe



«Txirrita» Ereñotzukoa izaki erretiroa Altzan topatu zuna, bertsolari talde onen ondoan. Kantari aparta abekin zenbat billera egingo zitun gure «Marrus»ek eta aozko bertso boteak millaka izango ziran. Gureganaiño iritxi zaizkigun bertsorik geienak «Marrus»ek idatzitako bertso papera dira eta ale txukunak billatu ditza-kegu tarteko, batzaz beste Uz-kuduni jarritako bertsoak, bere erraiñari eskeñitakoak, ardo kontrabandoan, txapel aundi bati... Andresi berez zetorkion bertsotako griña eta berak egindako bertso batekin nere idazlan xume onen atea itxiko det, erraiña maiteari bota zionarekin. Aldamenean nik burutatuko bertsotxo bat ipiñi det «Marrus»en maillara iris-

ten ezpanaiz ere nere maitasun papurra dijoakiola Altzako seme jator orri.

Alegriyatik Alza'ko errira neskatz eder bat propiyo, gure etxerako txit ona da ta beria aitortu biar zayo; bajuñ dagon dama gaztia altura nai nuke iyo, disgustorikan ez dezan izan gaur ni naizela meriyo. «Marrus»

Andres Arrieta igaro egin zan kantari mundu ontatikan, garai orretan Altzan etzegon bertsolarien faltikan; bere burutik ixurtzen ziran itz neurtuak gogotikan, ai! sagardua nola zatorren kupelako txotxetikan, Marrus'ko seme ark lantegia zedukan bertso fabrikan.

Lizarra estatutoaren egoitza

LATXAGA.

Izen aundi baten egoitza dugu Lizarra: Estatutaren egoitzarena, ain zuzen.

Gertakizun ori egun aundi bat dugu euskal edestian. Euskalerrriak lortu zuan eta bere buruaren jabetza agertu nai zuan. Egundorren bere neurria emateko, Euskalerrriko alkate denak bildu ziran txistua joz, erria agurtuaz iritsi ziran Lizarra'ra.

Berez billera au Iruña'n egi-tea erabaki zuten. Egundori napar tradizionalistak artua zeukaten beste billera egiteko. Euskalerrriko ordezkariak, billera ori Naparroa'n egin bear zala naitanariz ta orregatik egin zan Lizarra'n. Orrela, Euskalerrriko ordezkariak Naparroa taldeko kide bat bezala artu zuten ta

orrela Nafarroa'rik gabe ez zegoela Euskalerririk esan nai ziguten.

Egundori da Lizarra'rentzat oso berexia. Ezin dugu aztu: 1931'garren urteko Ekainaren 14'an. Lizarrako antzerki tokian Estatutuaren proiektua «Euskal jakintza» taldeak egiña, lenengo irakurri zuten eta gero ondo zegola esan ta, ortik aurrera Euskal probintzi danak izenpetu zuten, esanez ondo zegoela, Naparroak ezik. Naparroak ez du bein ere izenpetu idazki nagusi ori; ez du ezta eman ezezkorik. Oraindik Naparroako otsa txintxilik dago.

Zezen plazan izan izan Euskalerrriko alkateen billera, baita danen aldetik ontzat artua izate. An zegoen algara; alaitasuna ta besarkadak. Ura ikusi zu-

tenak, ezin aztu.

Ara ba, egundori bat Lizarra'n bear luketena ospatu.

Zergatik ospatu? Lendabizi Euskal probintziak Naparroa anai bat bezala artu zute-lako.

Bigarren; naparrak ait ortzen dutelako euskal kulturaren aberastasunak bereak dituztela ta Euskalerrria ez dala arrotz erria Naparroa'n; abesti berdiñak, dantza berexiak eta izkuntza, gure euskara, euskaldunen atsa. Gutxi al da?

Lizartarrak zezen plazan jarri bear lukete idazki bat ondo egiña arri batean.

Arri orrek oroitu araziko luke gure oiturak egundori oroitzen ditugun emaitzak direla ta beti gauzak ondo egiteko garaia dala.